

Italian, maiatzak 12... eta gero?

Artikulu hau irakurlearegana orduko ezaguna izango da Italian dibortzioa zilegitzatzen duen legea geldituko den ala ez. Idazten ari naizen hontatik oraindik aste bi daude tardeen. Legearen aldekoak bizi garen kontrakoan burruka bizagoten ari da.

Maiatzak 12an egingo den referendumean oso erraza dute italiarrek erantzun behar dutena: bai ala ez. Dibortzioaren legea bai ala dibortzioaren legea ez. Eta demokrazian bizi garenez, gehiena izango dutenek irabaziko lukete, eta kito. Baina «bai ala ez» horren azpian joko nahasiagoa dabil; horregatik baiezkoa edo ezezkoa ematen zailagoa gertatzen ari da, eta referendumean ondorioak ere ilunagoak.

Zuzen-zuzenean referendumean hau ez zuen inolako partidu politikotik eskatu. Hortarako sortu zen batzordeak bildu zituen behar ziren izenak eta bultzatu du gero Gubernua Herriaren iritzia eskatzera. (Kristau Demokrazia eta MSI-Movimento sociale italiano eskuin-eskuineko referendumean aldekoak izan dira). Batzorde haren kontra, herriak sorturiko eta partidu politikoei zuzeneko loturarik gabeko beste batzorde bat sortu izan balitz, legearen aldekoa alegia, oraingo burruka honek ez zukeen partiduen mailan eta politika mailan izan beharrik. Baina hori ametsetan ibiltzea litzateke, legea parlamentuak emandakoa bait zen, eta partiduen arteko burrukan ondorena, beraz. Partiduek beren eskutan hartu dute, hain zuzen, referendumean hau, eta saiatu ere egin diru partidu barnean dibortziari buruz iritzia eta joera bakarra sortzen.

MSI-ek ez, baina partidu guztiak ukatzen dute burruka hontan politika zabalgarriko jokoa jarri nahi dutenik. Baina bitartean kontrakoak salatzari ari dira, dibortzioaren inguruan politika orokorra astintzen ari omen direlako.

Zeintzuk dira, bada, referendumean honen inguruko eta barneko arazo eta ondorio politikotik?

1. **Parlamentua eta Herria.** Demokraziaren eta Herriaren agintearen bide bat da Referenduma. Italiako Koztututzuok onartu zuten bide hori. Baina 1970an gabe referendumearen legerik egin gabe zegoen. Kristau Demokraziak nahi izan zuen, hain zuzen ere, lege hau dibortzioaren legea baino lehenago eman. Oraingo hau da, beraz, Koztututzuoa onartu zenetik lehen referenduma.

Zer esan nahi du honelako referendumeak Demokrazia batetan? Parlamentuak onarturiko lege bat Herriak bota dezakeela. Eta orduan Herriak hautaturiko Parlamentuaren deza ke noizbehinkia Herriaren iritzia eta nahi interpretatzean, eta orduan Herriak, referendumean bidez, bere eskutan hartzen du legeak egiteko agintea. Horra hor Demokraziako ideologia batetan zer esan nahi duen honelako referendume bategi, eta bide garbia da noski. Hala ere, bide arriskutsua da, Parlamentuak egindakoa ezeztatzea horri izatala kentzea bait da. Edozein unetan Herriak referenduma eskatzeko eskubidea duelarik, Parlamentuaren indarra makaldu egiten da. Horregatik bildur dio Parlamentuak referendumiari.

2. **Partiduek eta Herria.** Partiduek nekez lortu dute beren «etxeetan» dibortzioaren legea eta referendumiari buruz batzuna egitea. Partiduen hautaleak sakanabatuago dabil. Orduan etena sortzen da Partiduen eta beraien hautaleen artean, dibortziari buruz. Ez komunien aldekoak, ez eta Kristau demokraziaren aldekoak daude osorik referendumean honetan «beren» partiduari jarraitzeko prest. Eta berdin beste partiduen aldekoak ere.

Horregatik Partiduek eta beraien ordezkariak nahiago lukete honelako burruketan ez agertu, beren hautaleak ez erdibanatzearen eta horiegandik ezeztapena ez pasotzearen.

Parlamentuan eta referendumean burruka hontan partiduen mailakoa eta politika mailakoa gertatu da dibortzioa, baina Herriaren ez dago ez norbere partiduari ez eta norbere politika jokabideari lotua. Honela bada, partiduen eta beren

hautaleen arteko etena sortu du referendumean honek.

3. **Referenduma eta Gubernua.** Referendumean hau Italiaren oraingo politika giro eta ingurumari osoaren barruan jarri behar da. Liraren eta ekonomia krisi zorroztar; ennergaren eskasia; infazio ikaragarria; aspalditiko gobernuen ahulezia; sindikatuen indar haundia... Guzti honek giro arriskutsua sortzen du dibortzioarekiko burruka hau latz, Gubernuko partiduen elkarteak hausi gabe, eramateko.

MSI-ek argi eta garbi komunismoaren kontra burruka bihurtu du referendumean hau. Honen inguruan ezkerriaren asmo ilunak ikusi nahi ditu; eta komunismoaren bil-dura zabalduz irabazi nahi du dibortzioaren kontrako burruka. Beste partidu guztiak politika maila hortatik aparte jokatu behar dela diote referendumean hau; baina une berean kontrakoak politizatzen ari dira salatuaz. Azken-azkenik, politizatzearen bil-durez edo politizatzearen asmo, partidu guztiak dabilza politika mailako burrukan.

Politika aldekata eta ondorioak ekarriko ote ditu, bada, referendume honek? Nondik norakoak? Ez da erraza erantzuten, oraindik ez bait dago ziurki baiezkoa ala ezezkoa irabaziko duen jakiterik ere.

Oraingo erdi-ezkerreko Gubernuko partiduak banatuta dabilte referendumiari buruz: Kristau Demokrazia batetik, eta sozialistak, sozial demokratik eta errepublikanoak bestetik. Beraien batasunaren argalak eramango ote ditu referendumean burruka latzaren astindua? Inork ez du batasun hori salatu nahi, referendumean istiluk dirla eta. Baina propaganda honen barnean altxa dira dagoeneko Gubernuko partiduen batasunaren zalantza eta beronen iraunkortasunaren kezak.

4. **Fanfanien De Gaulle berria?** Gollismoa erre da nonbait Frantzia. Eta ez Cheban-Delmas-ek eta ez Giscard d'Estaing-ek dute ber-biteko esmorik. Baina erantsu horietatik Italian sortu nahi ote da orain Fanfanien gollismoa?

Fanfani da orain Kristau Demokraziaren burua. Fanfanien «presidentialismo» ametsak ez dira oraingo nonbait. Eta referendumearen giroaz eta ondorioaz baliaturik, amets horiek bete nahi litzuke agia, Italiako egoera politikoa fin-akatuz gero eta iraunkorragotze-ko.

Referendumean propaganda mienean, Gubernuko partiduen «patto di legislatura» eskatu du Fanfani. Hau da, Parlamentuak irauten duen lau urtetarako, Gubernua osatu behar duten partiduek itun bat egiten lukete, politikazko egitaraua aurrean dute-larik. Frantzia De Gaulle-n eta gero Pompidou-ren garaian gertatu dena, alegia, Honela Gubernuko gehiengo iraunkorra gertatu-ko litzateke, eta epe seguru-k litzetue egitekoak betetzeko. Jakina, Fanfani bera izango litzateke gehiengo horren buru, horrelakorik adierazi ez baldin bada ere, eta Kristau Demokrazia izan litzateke gehiengoaren gidari, Frantzia UDR izan den bezala.

Fanfani ez du Errepublikako lehen-dakariaren eginkizuna, Koztututzuoa bera aldatuz, handitu behar denik esan. Beraz, ez du benetako presidentzialismo-rik eskatu. Baina Gubernuko gehiengo iraunkor hori ez ote litzateke hortarako lehen urratsa izanen? Eta beharbada ga-urto Italiako politikazko egoera as-tindu eta labankor honetan inol-z baino hobeto hartuko litzateke horrelako asmoa. Horregatik behar-bada, referendumean propaganda-ren alde ere, asmo hori suspertu nahi izan du Fanfani. Jakina, al-bait bezala eta dibortzioaren ara-zorekin lotu gabe, referenduma ez bait da politizatu behar eta beste arazo horiek in zikindu (1). Baina, gertatzeko zenez, beste partidu guztiak, Gubernukoak eta kontra-koak, haserretu egin zaizkio Fan-fani. Eta honek, referendumeak ez duela politika zabalarekin eta Go-bernuko oraingo elkartasunarekin zer ikusirik esaten jarraitu du: referendumean ondoren ez dela ezer aldatuko alegia, politika eta gober-nu mailan. Eta galnara Partidu ko-munista salatu du, honek referen-dumaz eta ezezko emango duten guztien hautakari baliatuz, agintea bere eskutan hartu nahi duela

esanaz. Berberatsua erantzuten dio Fanfaniri partidu komunista-k, horrek komunismoaren aurka dauden guztiak referendumean hontan bere-gatu nahi dituela eta. Dena dela, bai Partidu komunista-k eta bai Kristau Demokraziak hala nahita beharbada, baiezkoaren eta ezez-koaren arteko burruka zena bi par-tiduen arteko burruka gertatzen ari da.

Hitz, haserre eta burruka guzti hauen azpitik ez ote doa helduaz Fanfaniren asmoa? Dena dela, Fanfanien etorkizun politikoa referen-dumean honetan erabakiko dela di-ru; hain gogotsu eta berekotzat har-tu du referendumean honetako propa-ganda, eta bestek ere, baiezkoa eta hau defenditzen duen Kristau Demokrazia ez, eta bai Fanfani be-ra dutela dirudi sarritan beren etsai eta burruka gairik nagusia. Baiez-koak galtzen badu, Fanfaniren et-orkizun politikoa oso badaezpada-koa izango dela dirudi; irabazten badu, ordea, bere politikazko asmo za-balak betetzeko bideak irekiak edo irekiagoak izango ditu Fanfani.

5. **Eliza referendumean honetan.** Partiduak bezala, Eliza agintariak eta kristauak banatuta dabilte referendume honi buruz. Aspalditxo Gutzainen Konferentziak eman zuen agiri apal eta leunaren ondoren, gutzainen joerak ezberdink gerta-tu dira. Zenbat katoliko eta apaiz talde «ezezkoaren» alde agertu da; hau da, dibortzioa zilegitzatzen duen legea ez kentzearen alde. Batzuk beren iritzia-aren propaganda egiten ere gogotik saiatu dira. Horien ar-tean Franzoni apaiza, S. Paulo-ko Basilikako Abata ezaguna izanda-koa.

Geroztik, eta propaganda mintzen den neurrian, Eliza ofiziala eta Vaticano ere mintzen eta larritzen hasiak dira, zenbait gutzainen, (l'Osservatore Romano-ren, eta-baren erasoak agertzen duteaz. Az-kenik Franzoni Abata zigortu dute, Meza eta Sakramenduak emateko baimena kenduz.

Ata oiniduz bera ere sartuko ote da tartera? Al-bait bezala hi-tzezin du azken aldi honetan, bai familiaren alde bai ezkontzaren hau-tseizinen alde. Baina referenduma-rekiko burrukan ez du oraindik zu-zenean eskurik jarri.

Dagoeneko, Eliza lotuegia gerta-tu da referendumean honetan «baiez-koaren» aldeko propagandan, eta sarritan partiduek beraiek eragina hain zuzen ere. Denek diote katoli-koak ere banatuta daudela; baina bestalde (Eliza ofizialaren eta be-ronen «jokabidearen» kontra ere propaganda egiten saliatzen dira, «ezezkoaren» alde dauden katoli-koen jokabidearen aurka jarritz, hain zuzen ere. Honela, ez dago ukatzerik Eliza burruka honetan na-hasia eta nahasiegia dabilela. Eta nahaspilik garbi ateratze zaila da...

Ofizialki gehienak katolikoak dira Italian; beraz, Gutzainen erakasiak onartu beharko litzateke. Ezezko-a ateratzen bada, horrek zera esan nahi du: gehienetan beren bizi-tzan eta jokabideetan Gutzainen eta Elizaren erakasiak betetzen di-tuztenak ere, oraingo honetan kon-tra agertu zaizkio. Eta orduan Eliza agintariak eta Elizaren beraren si-negarritasuna oso jeltxia izango da, edo oso jeltxia dela esan nahiko du bederen.

Bestalde, Elizaren eta Estatuaren arteko konkordatu goitiki behera etorriko litzatekeela dirudi, ezez-koak irabazten baldin bada, hain mindua bait dago ezezkoaren alde-koen Eliza ofizialarenganako burru-ka.

Baiezkoak irabazten badu, ordea, Eliza ez gertu irabaziko duela uste dut. Antiklerikalismoa eta an-tibitanismo indartuko da, hori bai; eta urte gutxi barru berriz et-orrako da dibortzioa. Eliza barneko kritika biziagotxo egin da; eta oraingo mingotza baldin bada ere, lu-zarora onuragarria ere izan daite-keela pentsa daiteke: honela Eliza-ren zenbait erakatsi eta jokabide argituko bait da, eta agian baita ere Eliza barneko harremanak. De-na dela, Eliza barneko askatasun bidea beste urrats bat ematen ari da egun hauetan Italian, agintarien hitza eta eskua latza baldin bada ere.

Honetaz galnara, Eliza aukera ederra zukeen —eta izango du— ezkontzaren eta maitasunaren irau-

ASKATASUNAREN TEOLOGIA

“TEOLOGIA BERRIA”

Teologia gaietan, gauza utsa izan zaigu Latindar Amerika. Teologi-janaria Europatik zetorkien. Besteek ziotenari burua makurtzen zioten eta kito.

Azken urte aietan irrintzi bat entzun da Amerika becaldean. Teologiari gai berriak erantsirik datozkigu amerikarrok, eta baita izen berri batzetai ere bai berri ori: “TEOLOGIA DE LIBERACION edo ASKATASUNAREN TEOLOGIA”.

Amerikar Teologiariek sortu, eskeini eta aurrera eramane nahi duten teologia, gaur egunean Elizako Ikastetxe Nagusi guzietan, nai eta nai ez, ikasi eta erakutsi bearreko gaia da. Gaurko Teologiari pauso bikain bat aurrera eragin erazten dio. Lana eta lurreko arazoan Teologiatik, “Askatasunaren Teologiara” aldatu gera”. Kristau sinismen eta bere mezua, gizona askatu eta libre egiteko da. Gizonak askatzeko etorri da Kristo: Bere pekatuetatik, okerreko erakundeetatik, esplotazioetik, Agin-te-indarretik, grifa txarretatik, Diktaduratik eta berekoikeri eta egois-moetatik askatu bear gaitu Kristok. Auxen da Teologolari auen era-tsutia.

“ERRIAK LOTUTA”

Amerika beeko lurraldeak gogorkeria eta zapalketa izugarrian bizi dira. Kolonizazio eta morrontzape beldurgarrietan sortu ziran. Politi-kaz askatuak dirudien erri oiek, beren errien kondaira ez dute orain-dik beren eskutan artu. Erriak zurrupatzeko egifikako Erakunde-es-truektetan larri, ito ez ito, arkitzen dira. Bakar batuek, neuri gabe irabazteko eran, eratu zuten erria. Bakar oiek erri osoaren lan-irabazki zurrupatzen dituzte. Bitartean, Erri gaixoa, miseria-aren sareetan atze-makat, amasa artu amerikarrok.

Esnatu dira gure amerikarrok. Konprenitu dute besteen mende bizi direla. Politika, sozial eta erlijio aldetik ere bai lotuta daudela. Lo-ker auek, Ekonomi aldetik, batik bat, ezartzen zaizkiela. Zer egin?

“ASKATASUN EGARRIA”

Bertako Jendeetatik baño geiago, kanpotik datozkien ainbat lotu-razko kate gogorrik apurtu eta libre izan nai dute amerikarrok. Bi-kañagoak eta zuzenagoak nai dituzte beren lurraldeak. Askoren mis-eria ken eta bakar batzuen neuri gabeko ondasunak, guzien onerako zati eta zabal, orra or amerikar askoren egarrira.

1960garren urtean, Askatasunaren Teologia Medellinen asten da bo-robiltzen. Beeko Amerikar Gatozalek batzartu ziran erri aundian. Gizarte gaiel buruz, gogaketa-reflexio sakonetan diardute. Aurrerapena, irau-leta-reboluzioa, gogorkeria gaialk eta abar sakondu ondoren, sortu zen Liberaziozko Teologia.

“Liberazio” (askatasun itza) Medellinen erabili zan eta esan nai asko zituen sozial, antropologia eta erlijio aldetik: Gizonari eta mun-duari Kristok ekarri zion askatasuna. Zapaldek arma eta iskilluz, Im-perialismoaren aurka egin bear zuten burruka. Egitura eta erakunde okerrak puskatu eta apurtzeari... Gauzoi guzioi “LIBERAZIOA” xeritzan.

“LIBERAZIOZKO TEOLOGIA”

Amerika beeko Teologiariek ez dizkiete ateak itxi Elizaren Teologia aberatsari; zutifik jarri dira, ordea, eskola eta laboratorio utsezko Teologiaren aurka. Amerikar Teologolari auen jokara eta pentsakizunarekin, Eliza barnean, teologi gaietan, pentsaera berriak sortu dira eta plura-lismoak leku zabalagoa bearko du.

Goi-goiko laño artean, beren pentsaetarekin igerika ibiltzerik ez zaie ategin Teologolari auei. Astrato diran gauzei “utikan” diete. Amerikako egoera triste eta negargarria dute oñari Teologiaren pentsaera eta azterketak. Ebanjelioaren mezuz eta Kristau fedez beren errietako in-justizia, miseria eta bizi-ezina argitu nai dute.

Bizi diran Amerikar lurraldeei so dagiete Teologolari auek. Bertan dakusaten burrukak, ekintzak eta pentsaerak Liberazioaren Teologia-gai dira. Ebanjelioaren argitan, zer dugu gizaitearen onerako kendu bearre-koa? Zer alferrekoa? Erria zuzengabekeria guzietatik askatzeko, zer egin?

ASMO NAGUSIA

Liberazioaren Teologia beartsu eta ezer ez dutenen alde jartzen da. Miseria bizi diran ordez eta beren egoera aztertzeko gauza ez diranen izenean, pentsakizunari elizen diote Teologo berri auek. Gizon-anaia-ga-nako maitasunean bakarrik izan ditekela, diote, Jainko-maitasuna. Kri-stau izatea, maitasun utza da. Maitasuna, ekintza. Orregatik pentsa-izunetan lortzeko ez du izan bear Askatasunaren Teologik; biziki eta eten gabe lanari ekiteko baizik. Lanera, burruka, konpromisoetara bultz dagi Teologia orrek. Ekintzarik gabeko maitasuna geurrezko mai-tasuna litzateke; maitasunezko ekintza kristau guziek lanean parte ar-tzea da, zapaldu eta esplotatutako guziek askatasuna irixi dezaten. Politika eta diru aldetik datozkign zuzengabekeriazko erakundeak ken-zen auegindu ezik, ez dauka kristau maitasunik.

Elizak maitasunari ekin bear dio eta zapalduen ondoan bere burua jarri. Bere barnean aldekata aundiak egin bear ditu Elizak beartsu eta zapalduen alde lan egiteko gai izan dedin. Puskatu bear ditu Aundiki zapaltzaileekin dituan lotura guziki. Eliza ezin daiteke “neutral” izan; ez baterako eta ez besterako. Orrela egiteak zapaltzaileen jokari bai, bai, esatea litzateke.

Beeko Amerikar lurraldeetako kristaunen artean, naaste-borraste aundia dabil. Aundiki aberatssek, beti elizari izanik, beren ondasunetan igerika jarraitu nai lukete. Ez dira Eliza-arazoak, erri eta diru arazoak. Bego isillik Eliza. Auekin bat egirik Gotzai eta apaiz konsebadoriek arkitzen dira. Beste Gotzai, apaiz eta kristau asko errien askatasuna-rena aldez bizi burrukatzen ari dira presondegi, zigorrak eta eriotza bera sufritzeraino. Iskillu eta armarik gabeko burruka daramate Felder Camara, Gandhi eta orrelakoan antzera.

Badira Guerrillero izenez, Gubernametu eta Erakundeak kentzeko, armaz diat dutenak. Erriak salbatzeko Ebanjelioaren argiz ar daiteken bidea dela, diote. Teologolari geienek ordea armakiko jokabidea Eban-jelioaren argitan ontzat ar daitekeenik ez dute uste. Dena dela, As-katasunaren Teologia jarraitzen dutenak, Neokapitalismo bidetari zeroo utzita, Sozialismo batera doazela, aitortu bearra dago. Ez pentsa ordea kristan batek artu ezinikoa bidea denik.

AROSTEGITAR JOK

kortasuna erakasteko eta familiaren baliako agiriari jartzeko. Horixe bait da azkenik Elizaren eginkizuna, eta horietek dira «dibortzioa bai, di-bortzioa ez» burruka honen bar-nean dauden egia eta balio sako-

Paulo Agirrebaltzategi